

Ocio Cultural Universitario / Kultur Aisia Unibertsitatean Basauri

Presentación

El Programa **Ocio Cultural Universitario** se pone en marcha en 1993 con la finalidad de promover un ocio humanista en el entorno, defendiendo la idea de la formación como ocio y de éste como desarrollo personal y social. Desde entonces este programa se ha propuesto ampliar el horizonte cultural, descubrir valores y buscar en el ocio nuevos cauces de realización personal para aquellos ciudadanos y ciudadanas que en él participan.

Ocio Cultural Universitario es un programa de formación abierto, dirigido a toda persona con inquietud cultural, de cualquier edad y sin la exigencia de un título previo.

Ocio Cultural Universitario ofrece en la actualidad cursos de quince horas de duración que abarcan una gran diversidad de temas en las áreas de arte, literatura, historia, filosofía, salud, música u otros ámbitos de interés cultural y social.

DeustoBide - Escuela de Ciudadanía
Universidad de Deusto

Aurkezpena

Kultur Aisia Unibertsitatean programa 1993an jarri zen martxan, inguruan aisia humanista sustatzeko, prestakuntza aisia mota bat zela eta garapen pertsonal eta sozialerako zela defenditzeko. Harrezkero, gure programa honen asmoa izan da kultura-mugak zabaltzea, balioak zein diren aztertzea eta pertsona moduan hazteko bide berriak urratzea, aisia arloan parte hartzen duten guztientzat.

Kultur Aisia Unibertsitatean prestakuntza programa irekia da, kulturagatiko kezka sentitzen duten guztientzat, adina edozein dela ere, eta aurretiazko titulurik behar izan gabe.

Kultur Aisia Unibertsitatean programak hamabost orduko iraupena duten ikastaroak eskaintzen ditu gaur egun, era guztietako gaien ingurukoak: artean, literaturan, historian, filosofian, osasunean, musikan eta kulturean eta gizartean interesa sortzen duten beste arlo batzuetakoak.

DeustoBide - Herritartasun Eskola
Deustuko Unibertsitatea

1. Seihilekoa / 1er Semestre 2023/2024

Espainiako Gerra Zibila

Irakaslea: Iñigo Bolinaga

Historialaria eta idazlea. Historiako Ikasketa Aurreratuen Diploma. Kazetaritza Masterra. Euskal Ikaskuntzetako Unibertsitateko Espezialista. Historiako hainbat artikulu eta hamaika libururen egilea.

Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) Espainiako historia garaikideko gertaerarik esanguratsuena, traumatikoa eta eztabaidatuena da. Lehertu zenetik ia mende batera, interes handiko gaia izaten jarraitzen du, bai historialarientzat, bai herritarrentzat, eta gizarte-memoriaren funtsezko gaietako bat bihurtu da. Horren ondorioz, Gerra Zibila behin eta berriro errepikatzen den argudioa da gaur egungo eztabaida politikoaren barruan, eta horrek merezi duen garrantzi-mailara ekarri du, baina, aldi berean, benetako esanahiaz baliogabetu du, politika arloko interes faltuen zerbitzura sinplifikatzeko. Egia esan, Espainiako Gerra Zibilak interes izugarria pizten jarraitzen du mundu osoan, eta, denok horri buruzko iritzia eman arren, gutxi dira benetan irizpidez hitz egin dezaketenak. Iritzia ematea ondo dago, baina irizpidez hitz egitea askoz hobe da; eta, horretarako, Gerra Zibila zer izan zen zehatz-mehatz jakin behar da.

Ikastaro hau, hain zuzen ere, horretarako diseinatu da: ikasleei Gerra Zibilari buruzko ezagutza zehatza emateko: kausak eta ondorioak, baina baita arma-gertakari guztiak, inguruabar politikoak, pertsona ospetsuak, alderdi eta ideologia ezberdinen dinamika ere... Azken finean, Gerra Zibilera espiritu kritikoz hurbiltzea da kontua, eta horrelako gai batek ahalbidetzen duen zorroztasunez baina grinak alde batera utzita, gero, eskuratutako ezagutzan oinarrituta, bakoitzak bere ondorioak atera ahal izan ditzan.

Ordutegia: astelehenetan, 17:00etatik 18:30era.

Egutegia: azaroak 6, 13, 20 eta 27; abenduak 4, 11 eta 18; urtarrilak 8, 15 eta 22.

Hizkuntza: gaztelania

Gizabanako modernoaren larritasunak eta obsesioak

Irakaslea: Jon Joseba Leonardo

Soziologiako doktorea eta Deustuko Unibertsitateko Soziologiako katedradun emeritua. Santa Cruzen dagoen Kaliforniako Unibertsitateko (UCSC) Fulbright Scholarship izan da eta irakasle gonbidatua Indianako Unibertsitatean. Lurraldeko Adierazle Sistemetan eta Lurralde Plangintzan aditua da. Hainbat argitalpen egina da. 2017ra arte Bilboko Auzoen Hiri Behatokiko zuzendaria izan zen, Bilboko Udalak enkargatuta.

Gaur egungo korrante soziologiko eta filosofiko nagusiak publiko orokorrarentzat eta modu atseginean egokitzea gogoan hartuta, gaur egungo gizartearen aldaketa garrantzitsuenen errepasoa egingo da, eta bereziki azpimarratuko dira egungo kulturarekin zerikusia duten eta sortzen ari diren joerak. Ikastaroak egungo bizimoduetan izandako aldaketen ezaugarriak zehazten saiatu diren egileen ekarpenak errepasatuko ditu. Postmodernitatearen esanahia eta sortzen ari diren joerak jorratuko ditugu, autore adierazgarrien bidez: Zygmunt Bauman, Giles Lipovetsky, Slavoj Žižek..., haiek erakutsiko dizkigute gizabanako modernoaren larritasunak eta obsesioak, erreferentzia erlijiosoen galerak, indibidualismoaren areagotzea, egungo kontsumo-gizartearen aldarrikapenak markatutako mundu honetan.

Ordutegia: asteazkenetan, 17:00etatik 18:30era.

Egutegia: azaroak, 8, 15, 22 eta 29; abenduak 13 eta 20; urtarrilak 10, 17, 24 eta 31.

Hizkuntza: gaztelania

La guerra Civil Española

Profesor: *Iñigo Bolinaga*

Historiador y escritor. DEA en Estudios Avanzados de Historia. Máster de Periodismo. Especialista Universitario en Estudios Vascos. Autor de numerosos artículos y once libros de Historia.

La Guerra Civil Española (1936-1939) es el hecho más significativo, traumático y debatido de la historia contemporánea de España. A casi un siglo de su estallido, continúa siendo un tema del máximo interés, tanto para los historiadores como para la propia ciudadanía, habiéndose convertido en uno de los temas clave de la memoria social. Esto ha hecho que la Guerra Civil sea hoy un argumento recurrente dentro del debate político actual, lo que lo ha elevado al rango de importancia que merece, pero al mismo tiempo ha viciado su significado real en aras de la simplificación al servicio de los espurios intereses de la liza política. El hecho cierto es que la Guerra Civil Española sigue suscitando un tremendo interés en todo el mundo, y que, aunque todos opinamos sobre ella, son pocos los que realmente pueden hablar con criterio. Opinar está bien, pero hablar con criterio está mucho mejor; y para ello, hay que conocer con cierto detenimiento qué fue la Guerra Civil.

Este curso está diseñado precisamente para eso: para proporcionar a los estudiantes un conocimiento detallado de la Guerra Civil: causas y consecuencias, pero también todos los hechos de armas, las circunstancias políticas, las personalidades, la dinámica de los diversos partidos e ideologías... En fin, se trata de acercarnos a la Guerra Civil con espíritu crítico, y con todo el rigor y el desapasionamiento que un tema de estas características permite, a fin de que después, sobre la base del conocimiento adquirido, cada cual pueda llegar a sus propias conclusiones.

Horario: lunes, de 17:00 a 18:30

Calendario: noviembre: 6, 13, 20 y 27; diciembre: 4, 11 y 18; enero: 8, 15 y 22.

Idioma: castellano

Angustias y obsesiones del individuo moderno.

Profesor: *Jon Joseba Leonardo*

Doctor en Sociología y Catedrático Emérito de Sociología de la Universidad de Deusto. Ha sido Fulbright Scholarship en University of California, Santa Cruz (UCSC) y Profesor invitado en la Universidad de Indiana. Experto en Sistemas de Indicadores Territoriales y Planificación Territorial. Autor de numerosas publicaciones. Hasta 2017 ha sido Director del Observatorio Urbano de los Barrios de Bilbao por encargo del Excelentísimo Ayuntamiento de Bilbao.

Pensando en adaptar las principales corrientes sociológicas y filosóficas actuales para el público en general y de manera amena, se trata de un repaso a los cambios más importantes de la sociedad actual, haciendo especial hincapié a las tendencias emergentes relacionadas con la cultura actual. El curso hará un repaso de las contribuciones de aquellos autores que han tratado de caracterizar los cambios actuales en los modos de vida. Abordaremos el significado de la Posmodernidad y las tendencias emergentes a través de los autores más representativos: Zygmunt Bauman, Giles Lipovetsky, Slavoj Žižek..., ellos nos irán mostrando las angustias y obsesiones del individuo moderno en un mundo marcado por la pérdida de referencias religiosas, aumento del individualismo, y por los reclamos de la sociedad de consumo actual.

Horario: miércoles, de 17:00 a 18:30

Calendario: noviembre: 8, 15, 22 y 29; diciembre: 13 y 20; enero: 10, 17, 24 y 31.

Idioma: castellano

Izen-emateko prozedura

Leku kopurua mugatua da (gehienez, 63 pertsona), eta lehentasuna izango dute Basaurin erroldatuta daudenak. Izena emateko epea zabalik **egongo da urriaren 4tik 20ra bitartean**. Eskabidea betetzean, kontu zenbakia eman beharko da: zenbakirik eman ezean, ez da zozketan parte hartuko.

Ikastaroan 63 eskabide baino gehiago badaude, zozketa egingo da **urriaren 24an**, eta, onartuak izan zein ez, posta elektronikoz bakarrik jakinaraziko zaie interesdunei (helbide elektronikorik ematen ez dutenek, bulegoetara deitu, edo bertara hurbildu beharko dute). Zozketaren emaitzeekin itxaron-zerrenda ere egingo da, tokirik lortu ez dutenekin. Tokia lortu dutenek, berriaz, **urriaren 26tik 27ra** arteko epea izango dute, lekuari berariaz uko egiteko. Uko egin ezean, ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie, banku-helbideratzearen bidez; ordainagiria **azaroaren 3an** bidaliko da.

Ikastaro bakoitzean, gutxienez 45 parte-hartzaile beharko dira taldea sortzeko. Hala ez bada, Basauriko Udaleko Kultura Sailak beretzat gordetzen du ikastaroaren bat bertan behera utzi ahal izateko eskubidea.

Izena-ematea elektronikoki izango da. Horretarako, www.basauri.net webgunean dagoen lineako inprimakia bete eta bidali behar da. Hori eginda, eginda egongo da aurreinskripzioa. Ezin baduzue online egin, izena emateko inprimakia bete, eta Basauriko Udaleko HAZ-Erregistroan entregatu. Gogoratu aurretiazko hitzordua eskatu behar duzuela, hemen: <https://sede.basauri.eus/es/cita-previa>. Bestela, postaz bidali. Kontuan izan bidalitakoa izena emateko epea amaitu aurretik heldu behar dela, ze, bestela, eskabidea ez da onartuko. Hona hemen posta-helbidea:

Basauriko Udala (HAZ)

Kareaga Goikoa, 52 - 48970 Basauri

Prezioa

40 euro, Basaurin erroldatuta daudenentzat; eta 55 euro, erroldatuta ez daudenentzat.

Argibide gehiagorako, deitu telefono hauetara:

944 66 63 11 (Basauriko Udala) - 944 13 90 75 (Deustuko Unibertsitatea)

Ikastaroen egoitza

Basozelai Gizarte Etxea

Basozelai, 11 - 48970 Basauri

Procedimiento de inscripción

El número de plazas es limitado (máximo 63) teniendo preferencia los empadronados en Basauri. Se abrirá un periodo de pre-inscripción del **4 al 20 de octubre**. Es obligatorio facilitar un número de cuenta al rellenar la solicitud. Sin él no se tomará parte en el sorteo.

En el caso de que el número de inscritos para esta fecha sea superior a 63, se realizará un sorteo el día **24 de octubre**, cuyo resultado, sea positivo o negativo, enviaremos exclusivamente por e-mail (quien no lo proporcione, deberá llamar o acercarse por las oficinas). Del resultado del sorteo también se obtendrá una lista de espera con aquellas personas que no hayan obtenido plaza. La persona que obtenga plaza tiene de plazo del **26 al 27 de octubre** para renunciar expresamente a la misma. En caso contrario, se procederá al cobro mediante cargo a cuenta, pasándose el recibo el **3 de noviembre**.

En **cada curso**, será necesario como **mínimo 45 participantes** para la creación del grupo. De no ser así, el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Basauri se reserva el derecho de poder cancelar alguno de los cursos.

La inscripción se realizará on-line. En la página www.basauri.net, se habilitará un formulario on-line preparado al efecto. Solamente se trata de rellenarlo y enviarlo y el solicitante ya queda pre-inscrito. Si esto no fuera posible, se podrá entregar el impreso de inscripción debidamente cumplimentado en la oficina SAC-Registro del Ayuntamiento de Basauri (es necesario solicitar cita previa en el siguiente enlace: <https://sede.basauri.eus/es/citaprevia>, o bien enviándolo por correo a la siguiente dirección. El envío deberá llegar antes del cierre de la inscripción, si no es así la solicitud será desestimada:

Ayuntamiento de Basauri (SAC)
Kareaga Goikoa, 52. 48970 Basauri

La inscripción podrá realizarse también en la página www.basauri.net, rellenando el formulario on-line preparado al efecto.

Precio

El precio del curso es de 40 euros para los empadronados en Basauri y de 55 euros para los no empadronados.

Para más información llamar a los teléfonos:

944 66 63 11 (Ayuntamiento de Basauri) - 944 13 90 75 (Universidad de Deusto)

Lugar de realización de los cursos

Centro Cívico Basozelai
Basozelai, 11 - 48970 Basauri